

14. FITXA Lurralde-eraldaketarako eta despopulazioaren aurkako borrokarako proiektu berritzaileak (MITECO) (argitaratzeke)

Norentzat: Udalak edo udalen elkarteak (A modalitatea); irabazi-asmorik gabeko erakundeak (B modalitatea); pertsona fisiko edo juridikoen taldeak (C modalitatea).

Sarbide-esteka: (argitaratzeke).

Eremuak: Lurralde eraldaketarako proiektuak.

Zenbatekoa: (argitaratzeke).

Aurkezpen-amaiera data (aurreikusia): 30 egun natural, argitaratzen den egunetik aurrera.

Laburpena

Deialdi honek ekonomia, gizarte, ingurumen eta genero ikuspegitik despopulazio arazoak dituzten eremuen suspertze sozial eta ekonomikoa indartu eta landa eremuaren balioa handituko duten lurralde-eraldaketarako proiektu berritzaileak sustatu nahi ditu.

Proiektuen ezaugarriak

Proiektu berritzaile bereziak eta erakusgarriak, despopulazioari aurre egineta garapen jasangarriaren eta trantsizio ekologikoaren alde eragiteko asmoa dutenak, modalitate hauetako batean:

A. Proiektu instituzionalak

Toki-erakundeek sustatutako proiektu instituzionalak, **adimen-ekosistemak sortu zein lurraldean berrikuntza garatzea helburu dutenak eta jarduera sozioekonomikoa suspertuko duten proiektu traktoreak bultzatzen dituztenak**, erronka demografikoari aurre egin eta despopulazioaren aurka jarduteko.

B. Gizarte-proiektuak

Irabazi-asmorik gabeko erakundeek sustatutako gizarte-proiektuak, lurralde-eraldaketa xede duten proiektuetan gizarte-partaidetza sustatzea eta garatzea helburu dutenak.

C. Enpresa-proiektuak

Ekonomia sustatzea, dibertsifikatzea eta suspertzea helburu duten enpresa-proiektuak, horrekin batera lanpostu berriak sortu edo lehendik daudenei eustea lortuko dutenak, eta horrela zailtasun demografiko

bereziak dituzten eremuen garapena sustatuko dutenak, gazteek eta emakumeek bultzatutako proiektuetan arreta berezia jarriz.

Gastuetarako aldi hautagarria

Deialdia argitaratzean zehaztu beharrekoa.

Laguntzen zenbatekoa eta mota

Diru-laguntza gisako finantzazioa, **diruz lagun daitezkeen gastuaren %90eraino A eta B modalitateetan, eta %70eraino C modalitatean.**

Gainera, proiektu bakoitzak ezin izango du A modalitate osorako erabilgarri dagoen aurrekontu-kredituaren %5 gainditu, ez %12 ere B modalitatean.

Parte hartzeko baldintzak

Proiektuak udalerrri batean edo gehiagotan garatu ahal izango dira, **eta hautagarriak izango dira 5.000 biztanleko edo gutxiagoko udalerrriak** nahiz 5.000 biztanletik gorako udalerrriak ere, **betiere jarduketak 5.000 biztanle baino gutxiagoko toki-erakunde txikiagotan egiten badira.**

Erakunde hauek izango dira onuradunak:

→ A modalitateko proiektuak:

→ **Udalak edo udalen elkarteak.**

→ Probintzietako diputazioak eta foru-aldundiak, uharteetako kabildoak eta kontseiluak, eta probintzia bakarreko autonomia-erkidegoak, probintzietako diputazioei dagozkien eskumenak gauzatzen dituztenean.

→ Autonomia-erkidegoek eraturako zenbait udalerrri biltzen dituzten eskualde-kontseiluak edo bestelako toki-erakundeak.

→ Udalerrrien mankomunitateak, baldin eta beren helburuen artean ekonomia garatzea, enplegua sustatzea edo jarduketak egiteko zilegitasuna ematen dieten antzeko beste helburu batzuk badituzte.

→ Aipatutako lurralde-mailako edozein toki-erakunderi lotutako edo haren mendeko erakunde autonomoak.

→ B modalitateko proiektuak, ezaugarri hauek dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeak:

→ Probintziaz gaidiko, autonomiako zein estatu mailako jarduketa-eremua izatea.

→ Lehentasunezko erakunde-helburutzat deialdiaren helburuarekin bat datozen jarduerak egitea.

→ Irabazi-askorik ez izatea.

→ C modalitateko proiektuak:

→ Pertsona fisiko edo juridikoen elkarteak, publikoak edo pribatuak, ondasun-erkidegoak edo bestelako unitate ekonomiko edo ondare-unitate bananduak, nortasun juridikorik ez izan arren, proiektuak, jarduerak edo portaerak gauza baditzakete edo diru-laguntza haiei ematea eragin dezakeen egoeran badaude.

Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak

Oro har deialdiaren xedearekin lotuta dauden eta hura lortzeko egokiak diren kontzeptuak hartuko dira kontuan:

- **Langileen gastuak**
- **Bidaiak eta mantenua.**
- Jardueren gastuak.
 - Kontsumorako artikulua, hornidurak eta zerbitzu orokorrak.
 - Ondasun higiezinaren alokairua.
 - Beharrezkoa izanez gero, erregistro publiko batean **inskriba daitezkeen ondasunetan egindako inbertsioak** (eskuratzea, eraikitzea, birgaitzea eta hobetzea), baita **ibilgailuen erosketetan egindakoak ere**, baldin eta justifikatzen bada ondasun horiek ezinbestekoak direla eta jarduerarako aurreikusitako lorpenekin lotuta daudela. Inbertsio horiek ezingo dute gaintitu kasuan kasuko proiekturako eskatutako diru-laguntza osoaren % 5, eta gastua deialdi bakoitzak zehazten duen diruz laguntzeko epearen barruan egin beharko da, justifikazio-data baino gutxienez 6 hilabete lehenago.
- **Justifikazio-gastuak** (%10eko muga izango dute).
- **Zeharkako kostuak.**

Proiektua azpikontratatu ahal izango da, gehienez ere aurrekontu hautagarriaren %80ra arte.

Intereseko beste alderdi batzuk

Enpresen kasuan, minimisari lotutako deialdia.